

Carlos García Goi Eskola Politeknikoko zuzendari orokor izendatu dute

2014/10/24

45 urte dituela, ezkontuta dago eta semea eta alaba ditu. Carlos García Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa egin zuen Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan eta Goi Ingeniaritza Mekanikoa, materialen espezialitatean, Ecole Centrale de Nantes-en (Frantzia)- Han egin zuen Deformazio bidezko Fabrikazio Teknologiak doktoregoa.

1993tik, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan ari da lanean irakasle eta ikerlari bezala Fabrikazio departamentuan. Nagusiki, bere lana, irakaskuntzara eta ikerketara bideratuta egon da. Materialen arloko ikerketa eta berrikuntza proiektuetan parte hartu du. 1999tik 2007ra arte, Materialen Konformatuaz Eraldatzeko Prozesu Aurreratuak taldeko Koordinatzailea izan da.

Azken 8 urteotan, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ikerketa eta Transferentzia Koordinatzailea izan da eta aldi berean, Koordinazio Orokorreko mahaikidea.

